

Hiruhileko BPGa 16ko III. hiruhilekoa: Hiruhilko arteko Δ :%+0,7; Urteik urterako Δ : %+3,0

Gipuzkoako jardura ekonomikoak %+0,7h/h egin du aurrea hirugarren hiruhilekoan, %+0,6h/h Euskadikoak. Kanpo sektorea izan da hazkunde horren eragilea, barne eskariaren moteltzearen aurrean. Industriak indarra hartu du, zerbitzuek galdu dute ordea.

Eustaten azken kontu ekonomikoaren arabera, **Gipuzkoako BPGak %+0,7h/h, edo %+2,8 urtekotutako tasan**, egin du aurrera hirugarren hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoarekiko zertxobait moteldu da beraz (%+0,8 edo %+3,3 urtekotutako tasan orduan), **urte-arte tasa %+3,0an** mantendu den arren. Hau hola, ekonomia jarduerak **+%3,1eko** hazkundea metatu du **lehenengo hiru hiruhilekotan** aurreko urtearekiko, %3,4 orduan.

Enpleguak %+0,5h/h edo %+2,2 urtekotutako tasan egin du arrera **hirugarren hiruhilekoan**. Hazkunde honen ondorioz **+1.642 lanpostu berri** (lanaldi osorako baliokideak) sortu dira aurreko hiruhilekoarekiko, orduan sortutakoak baino gutxiago (-290 lanpostu gutxiago), baina pasa den urteko hiruhileko berdinean sortu zirenak baino gehiago (+713 lanpostu gehiago). Hala ere, **urte-arte tasa %+1,8ra** iritsi da hirugarren hiruhilekoan, hau da, **+5.263 lanpostu sortu dira aurreko urtearekiko**.

Euskadin, orohar, BPGak **+%0,6h/h edo %+2,5 urtekotutako tasan** egin du aurrera, aurreko hiruhilekoan baino gutxiago (%+0,8h/h edo %+3,4 urtekotutako tasan orduan). Hortaz, **urte-arte tasak** bi hamarren galdu ditu ere eta **+%3,0an** kokatu da (%+3,3 bigarren hiruhilekoan). **Lehenengo hiru hiruhilekotako hazkunde metatua %+3,1** da ere.

Uztaila eta iraila bitartean, **kanpo sektorea** da hazkundeari gehien laguntzen diona, **+0,5 puntutako** ekarpena egiten dio. **Barne eskariak**, ordea, **+0,1 puntutako** ekarpena egiten dio bakarrik. Hala ere, kanpo sektorearen ekarpen positiboa **esportazioak inportazioak** baino gutxiago murrizten direlako gertatzen da, **%-2,0h/h** eta **%-2,6h/h** hurrenez hurren.

Barne eskariaren moteltzea, **kontsumo**arekin gertatutakoaren islara da, **+%0,1h/h** bakarrik egin baitu aurrera (%+0,7h/h aurreko hiruhilekoan). **Etxeetako kontsumoa %+0,3h/h** ra moteldu da, eta **administrazio publikoena %-1,1h/h** murriztu da. **Inbertsioak** indarra galdu du ere eta **+%0,4h/h** hazi da; **+%3,1h/h** egin du aurrera **KFEG ekipo ondasunetan**, baina **gainontzeko KFE %-0,8h/h** murriztu da.

Eskaintzaren aldetik, industria eta zerbitzu sektoreak dira, ia zati berdinean, hirugarren hiruhilekoko hazkundearen atzetik dauden sektoreak. **Industriak**, indarra irabazten darrai eta **+%1,4h/h** egin du aurrera, **+%1,5h/h** manufaktura-industria. **Zerbitzu sektoreak**, aldiz, indarra galdu du eta **+%0,4h/h** egin du aurrera. **+%0,5h/h** hazi dira merkataritza, ostalaritza eta garraio zerbitzuak, **+%0,3h/h** administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak, eta **+%0,5h/h** ere gainontzeko zerbitzuak. Eraikuntza sektoreak bakarrik egin du atzera, **%-0,2h/h**, eta lehen sektorea aurreko maila berdinean mantendu da.

Euskadi mailako enpleguari dagokionez, **+%0,2h/h** hazi da hirugarren hiruhilekoan. Hazkunde hau aurreko hiruhilekoan emandakoa baino lau hamarren txikiagoa da, baina hala ere, **+1.756 lanpostu berri** sortu dira. **Industria** sektorea da, bereziki, hazkunde honen eragilea, **+%0,9h/h**. **Zerbitzuen sektorean** eta **eraikuntza sektorean**, aldiz, **+%0,1h/h** eskasa hazi da. Lehen sektorean, bakarrik, murriztu da, **%-3,6h/h**. Hau guztiarekin, enplegu osoaren **urte arteko** hazkunde tasa **+%1,8an** mantendu da (+16.030 lanpostu berri) eta **lehenengo hiru hiruhilekotan %+1,9ko** hazkunde metatua da.

	BPG									
	Urteko bilakaera		Hiruhileko arteko bilakaera				Urte arteko bilakaera			
	2014	2015	2015	2016			2015	2016		
			IV	I	II	III	IV	I	II	III
Gipuzkoa	1,6	3,4	0,7	0,7	0,8	0,7	3,1	3,1	3,0	3,0
Euskadi	1,6	2,9	0,6	0,8	0,8	0,6	3,1	3,3	3,2	3,0
Industria eta energia	2,0	3,9	0,7	0,1	0,7	1,4	4,9	4,8	2,4	2,9
Manufaktura industria	2,4	4,7	0,3	1,5	-0,2	1,5	5,7	4,7	2,7	3,1
Eraikuntza	-1,7	0,5	4,6	-2,5	0,1	-0,2	-0,2	-0,3	2,7	1,9
zerbitzuak	1,7	2,9	0,3	1,3	1,0	0,4	2,8	3,0	3,4	3,1
Merk., ostalaritza, garraio	1,9	4,5	1,6	0,7	0,8	0,5	3,8	3,1	3,9	3,7
Herri-ad., hezkuntza, osasun, giz. zerb.	2,6	2,6	-1,9	2,4	1,6	0,3	2,2	2,2	2,4	2,4
Gainerako zerbitzuak	1,0	2,0	0,5	1,1	0,9	0,5	2,4	3,4	3,6	3,0
Barne-eskaria	1,4	2,8	0,5	1,4	0,8	0,1	2,7	3,1	3,3	3,3
Azken kontsumoko-gastua	1,9	2,8	0,1	1,8	0,7	0,1	2,7	3,1	3,2	3,2
Etzeguneak	2,2	3,1	0,4	0,5	1,8	0,3	2,9	3,3	3,4	3,4
Herri-administrazioak	0,6	1,8	-1,1	7,0	-3,7	-1,1	2,0	2,4	2,7	2,7
KEG	-0,5	2,8	1,7	-0,2	1,1	0,4	2,8	3,4	3,7	3,7
Ekipo-ondasunetan	3,3	6,5	-0,1	2,4	0,6	3,1	8,8	10,7	7,0	7,0
Esportazioak	5,8	0,6	-0,9	-1,2	5,9	-2,0	2,3	4,2	3,0	3,0
Inportazioak	5,3	0,6	-1,1	-0,3	5,5	-2,6	1,6	3,9	3,2	3,2